

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako 346 kontzejuetako hauteskundeak deitu ditu Gobernuak

Guztira 40.959 herritar biltzen dituzte

Asteazkena, 2019.eko martxoak 27

Nafarroako Gobernuak, gaurko bilkuran, foru dekretu bat onartu du zeinaren bidez Nafarroako 346 kontzejuetako hauteskundeak deitzen dituen; guztira 40.959 biztanleri eragiten die. Jakina denez, hitzordua maiatzaren 26an, igandean, izanen da. Dekretua indarrean sartuko da udal hauteskundeen deialdiaren Errege Dekretua ezartzen den egun berdinean.

Kontzeju bakoitzeko biztanleen kopuruaren arabera, hauteskunde horietan honako karguak beteko dira:

-1.000 pertsonako edo gehiagoko kontzejuen junta presidentek eta sei bokalek osatuko dute.

-50 biztanle baino gehiago eta 1.000 biztanle baino gutxiagoko kontzejuetan, presidentek eta lau bokalek osatuko dute; baita Kontzeju Irekia erregimenarekin zuzendutako eta Foru Administrazioari junta izateko borondatea, hauteskundeen deialdiaren aurretik legezko kideen gehiengo osoak onetsitako akordioarekin bitartez eskatu dutenek ere.

-50 biztanle baino gutxiago dituzten kontzejuetako presidentea Kontzeju Irekia erregimenaren bitartez zuzenduko da; baita biztanle gehiago izanik, eta hauteskundeen deialdiaren aurretik Juntako gehiengo osoak onetsitako akordioaren bitartez Foru Administrazioari Kontzeju Irekia eratzeko borondatea aurkeztu dutenek ere.

Parlamentuko hauteskundeetarako txartelen ereduak, gutunazalak eta inprimakiak

Bestalde, Gobernuak gaurko bilkuran, akordio bidez onartu ditu Kontzejuetako eta Nafarroako Parlamenturako, maiatzaren 26an eginen diren hauteskundeetarako, txartel ereduak, gutunazalak eta inprimakiak.

Parlamentuko hauteskundeetan, txartelak eta gutunazalak sepia kolorekoak izanen dira, eta kontzejuetan berdeak. Bi kasuetan, eremu euskalduneko eta mixtoko eredu guztiak elebidunak izango dira, eremu ez-euskalduneko gaztelaniaz.